

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 240. alea - 2019ko maiatza



Dena prest  
Antzerki Astea abiatzeko



**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implantak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 2/05/049  
NIVEL 2



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

**ZERBITZUAK:**

- \* Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresioak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



**URDAITEGIA**  
**AITTOLA**  
**HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**Calbeton**

JATETXEA

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZKINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPIUZKOA) Fax: 943 192 482



**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



API 447



# AURKIBIDEA

4

GUTUNAK

Emili Sukia:  
"Kolorez beteriko  
ametsak.  
Morea, lore dotorea..."

6

ANTZERKI ASTEA

Dena prest aurtengo  
Antzerki Asteari  
hasiera emateko.  
Ikus egitaraua

12

ALBISTEAK

Ekainaren 19an abiatuko da  
Animadeba Nazioarteko  
Zinemaldia; Mesquita  
zabaldu dute herrian...

14

ELKARRIZKETA

Lorpen ederrak egin ditu  
Kimetz Etxabe  
txirrundulariak Pistako  
Espainiako txapelketetan

17

KRONIKA

Udaberrikoak bukatuta,  
Gaztelekuan  
udako oporrei begira  
hasi gara

## Iritzi zutabeak, *Debarrak munduan, Herrikoak Berriketan...* animatu zu ere!

Epa, lagun:

Badakizu 2017. urtean *Berriketan* aldizkarian zutabegileen parte-hartzea handitu zela, eta harrezkero arrakasta handiz lortu dugu hilero bizpahiru herri-tarrek euren iritzia ematea. Aldizkaria indartzeari ekin diogu eta gure asmoa da debar guztiei eta herrian dauden taldeei parte hartzeko ahalik eta aukera zabale-

na ematea dena den berripaper hone-tan. Horrela bada, aurten *DEBARRAK MUNDUAN* eta *HERRIKOAK BERRIKETAN* atalak sortu ditugu. "Debarrak munduan" sekzioan, munduan zehar eta gure herritik kanpo bizi direnen berri izan nahi dugu, elkarrizketa baten bidez, eta "Herrikoak Berriketan" en, berriz, talde, elkarte edo eragileei lekua eskaini

nahi diegu gai librean aritu daitezen.

Animatu! Eta horietakoren batean parte hartu nahi baduzu, edo parte hartu nahiko lukeen baten bat ezagutuz gero, aurrera. Hona hemen gurekin harremanetan ipintzeko helbidea: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com).

Zuhatza Euskara Elkarteko  
Komunikazio Taldea

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

Zuhatza  
euskara elkarteak  
deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Itziar Matxain Urria

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Terese Larrañaga

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Inprimategia:** Euskalinpri

**Lege gordailua:** SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Kolorez beteriko ametsak "Morea, lore dotorea..."

Oraindik gogoan ditut lehen egunak. Urduritasuna, bilerak han eta hemen, baimenak, ilusioa, gogoak, elkarlana... Gezurra badirudi ere, sei urte pasa dira. Herriak aisialdi talde baten beharra zuela ikusi, lantalde (gaur egun, gehienak, lagun min bihurtuak) izugarri batekin martxan jarri eta horrela sortu zen Kolore Anitz Aisialdi Taldea.

Polita izan zen, dudarik gabe, baina lan handia egin genuela ere aitortu behar dut. Hutsetik hastea inoiz ez da erraza. Margo bat ere ez genuela... oraindik ondo gordea dut gure lehen kamiseta; lagun baten lokalean, eskuak margotu eta horrela egin genuen; ekin-tzetan izerditzeko beldurrez beti, bakarra baitzen eta, garbituz gero, margoa joango zitzaion beldur.

Hala ere, poliki, pausoz pauso lortu genuen herria konkistatzea, baita herriko haurren ilusioak piztea ere. Eta egun, lokala ez da lagun batena, gurea

baizik, kamiseta dotoreak ditugu, eta material pila bat ekintzak aurrera eramanez ahal izateko.

Urteak pasa diren heinean, aldatuz joan dira taldeko parte-hartzaileak. Hasiera batean oso kide gutxi ginen eta gaur egun 10-15 lagunek osatzen dute taldea. Jende horri guztiari eskerrak eman nahi dizkiot. Lan handia egin da beti, eta badakit ez dela beti samurra izan nirekin elkarlanean aritzea. Erantzukizun handia nuela iruditzen zitzaidan eta badakit gogorra izan naitzela momentu askotan. Beraz, eskerrak asko egin duzuen lan guztiagatik, eta barkamenak noizbait ere norbait mindu baldin badut.

Baina eskerrik beroenak Zuhatza Euskara Elkarteari eman behar dizkiot, nigan jarritako konfiantza guztiagatik. Zuhatza aipatzen dut; bertan parte hartzen duten guztiei doaz eskerrak, bai, baina batez ere pertsona konkretu batzuei, beti egon baitira hor, nire albo-

an. Eskerrik asko gurekin elkarlanean aritu diren elkarte guztiei ere, Udalari. Eta, nola ez, herriko gurasoei. Mila esker guztioi, 6 urte hauetan nire amets txikia handi eta koloretsu bihurtzen laguntzeagatik. Ederra izan da oso, eta gogorra era berean. Baina are gogorrago egiten ari zait agur esatea, orriari buelta ematea; Kolore Anitz nire parte dela sentitzen baitut.

Bukatzeo, animoak eta munduko zortetik handiena lekukoa hartu duzuenoi eta ezin aipamen txiki bat ez egin nirekin proiektu hau abiatu zenuen guztioi; benetan polita izan da zuek ezagutzea eta ondoren elkarrekin pasa ditugun momentu guztiak bizitzea, bihotzean betiko gordetzen diren horietakoak.

"Izango da betiko nire kolorea. Kolore Anitz, Kolore Anitz... GORA KOLORE ANITZ!!!!!!".

*Emili Sukia*




## Alde bakarretik

**Alde bakarretik** eman ziguten su-etena, zutabe bakarrean sostengatu behar, beraz, elkarbizitza. ELKAR berak definizioz gutxienez bi alde eskatzen dituela jakitun, eta hala ere, itxaropentsu heldu genion orain dela hamarkada bat bidetara, horrek, denbora lagun, beste aldeko zutaina eraikitzeko harri bat lehenengo, beste bat gero jarriko zizkigulakoan.

Desberdinen arteko elkarbizitza ez da erraza izan inoiz, inon, ezertan; ezta sentimendu-mailan ere! Giza-miseriari. Ikasiko dugu halako batean! Baina nola demontre egingo dugu, orduan, horrelako bide malkartsu bat alde bakarreko ahaleginekin? Pentsatzen jarrita, abiapuntu horren aurretik ere zenbat aldiz sentitu dugun geure burua aldebakarreko mundu batean!:

Vitoria-Gasteiz, 2000 urtea-edo. Egunero joaten naizen igerilekuko aldalekuak. Ruper bozgorailuetatik, "ze arraroa, ze ondo!!!". Inguruan, eguneroko emakume erdaldunak, Ruperren adinekoak-edo. "Ezagutuko ote dute niretzat hain etxekoa den doinu hau?" jokatu nuke edozer ezetz, gustura hartuko nukeen arren kontrako sorpresa. Ezjakintasun horretan geratu nintzen, ordea: inon idatzi gabeko debeku negargarriak, ezezagunei asko jota ordua galdetzen uzten digun horrek, gure konbentzio absurdoen multzoan ondo irabazi zuen berriz bere lekua, errutina grisari abentura minuskuloenaren kolorea ukatuz.

Kasualitatez, edo ez, ordutik 19 urtera, orain dela astebete jaso dut erantzunetako bat, ezagun baten ahotik, noski. Ikastaro bateko lagun erdaldunei (Portugaletetik eta Oreretakoak) aipatu nien Anariren kontzertu batean egon nintzela. "Norena?" Ene..., neurekiko, ez da atzokoa eta disko mordoa du! Beraz, aukera aprobetxatu nuen: "sentsazioa daukat hemen batzuek bi kultura bizi ditugula eta beste batzuek bat." Batek erantzun zidan ezetz, Su ta Gar izugarri gustatzen zitzaizkila... Ezin gara euskal rock erradikalera, edo 90eko talde batera mugatu, pentsatu nuen, denok ezagutzen ditugu Alex



Ubago, Amaia Montero edo Fito..., gustatu ala ez.

Horregatik bihotzak bulkada bat eman zidan atzo, bideo batean Zea Mays Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin jotzen ikustean. Irudikatu nitue-nean han agertzen ziren trajedun gizonezko ile urdinak etxean Aioraren ahotsa entzuten, letrak zipitzik ulertu gabe, eta musika "berri"arekin zoratzten, emazte eta seme-alabek sinestezin begiratzen ziotela... PUFF! Hori da bidea, euskarak ez du zertan ezereen muga izan, are gutxiago artearena.

**"Euskaldunok borondatez egin ditzakegu orduak eta orduak. Baina ezin garenez inoren narruan sartu, ezinbestean, ondo aztertu beharko dugu zein den norbanakoaren galga"**

Hizkuntzen aldebakarrieriaz, berriz, zer esango hor badugu Euskaraldia dena esaten. Izugarrizko ariketa iruditu zitzaidan, konplexuak

baztertzeko mundiala, eta jarrean inguruko azterketa soziolinguistiko zoragarria. Baina ez-gustukoak ere jarri zizkigun begien parean. Belarri prest eta aho biziaren proportzioak, adibidez, ematen du zer pentsatua. Eta horregatik, mila txalo txapadun euskaldun berri edo euskaldun pasiboak. Txapadunak baino askoz gehiago dira, ordea, direnak, zergatik gordetzen dira oraindik armairuetan?


Euskaldunok borondatez egin ditzakegu orduak eta orduak: mintzailagunak, Korrikako nikiak saldu plaza berrian, bilerak eta bilerak Zuhatzan. Baina ezin garenez inoren narruan sartu, ezinbestean, ondo aztertu beharko dugu zein den norbanakoaren galga. Zorionez, Bartzelonako PPko hautagaiaren arrazoia, hots, hizkuntza ez jakitearen harrotasuna, badakigu ez dagoela ia inoren buruan. Izan liteke beldurra, barrerak gaintitzeak dakarren lotsapereza, edo hain modako konfort-zona.

Edozer dela ere, sentsazioa daukat azken hamarkada honen aurretik ere bizitza osoa daramagula elkarbizitzaren soka nasaian ekilibrioak egiten. Ez dakit ohartzen garen, aldiz, azkenean soka erori egiten dela, tiratuz gero **alde bakarretik**.

Nagore Dorronsoro



## AMA LUR / AMERRIA ALA ABERRIA



Ama Lurrek Ludia esan nahi du, eta milioika bizi era ahalbidetzen ditu. Horietako bat da gurea; eta gure arbasoek kontu zaharretan esaten digutenez, Ludiak bere barruan altxor harri-garriak omen zeuzkan, eta gizakiak horiek lapurtzen saiatzen omen ziren beti; bizirik irauten du oraindik ere kontu zaharrek diotenak, aldaketa txikia eman dugu eta. Altxorretarako sarbideak haitzulo eta leizeak ziren; horietan bizi baitzen **Mari, Ludiaren pertsonifikazioa**, bizia ahalbidetzen zuten ondasunen emailea. Hori eskertzeko, gure arbasoek opariak eramaten zituzten haitzulo eta leizeetara. Era berean, Hego Amerikan, jatorriz bertakoek, kitxuek, aimarek, maputxeek..., lurra lantzen hasi aurretik, Patxamamari jana eta edana emateko ekitaldia egiten dute, ondorioz jasoko duten uztaren ordaintzat.

**Aberria**, Sabino Aranaren neologismoa da. *Aba*/aita eta *herria* hitzez osatua.

**Amerria**, naziotasunari dagozkion ezaugarriak feminizatzen dituen beste neologismo bat dugu. Horrela begirata, Amerria Ama Lurra da, Patxamama; bere bizi indarraren sorgunea, abere eta landareen bizibidea ziurtatzen jarraitzen duena, eta gizakioi elikadura eta bizitokia ematen dizkiguna. Amerriak, Ama Lurrek bizibidea, errespetua, elkarkidetzeta, adierazten baditu, Aberriak mundu borrokalaria gogorarazten digu, mundu matxista, besarkadaren orde ezberdintasuna, gu eta Ludia esplotatzen dituen gizartea iradokitzen digu.

**Amerria/Ama Lurrek** bakoitzaren jaioterria adierazten du, **mundu guztiak kabitzen diren munduaren barruan**. Genero, herri, kultura diferentetako pertsonen artean benetako kidetasuna izango duen mundua; ekonomia pertsonen zerbitzura izango duena; planetako pertsona eta lurralde guztien arteko pobrezia eta ezberdintasunak ezabatuko dituen; hezkuntza eta osasun-bidea bermatuak izango dituen; eta gobernu irekiak, askotari-koak eta parte-hartze zuzenekoak dituen. Planeta iraunkorra, non **Garapena**, lehenik, **Elkarbizitza espezientzia amerritarra** izango den.

*Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro*



Kontu zaharrak dioenez, denboren hasieran, emakume eta gizonak lurra betetzen hasi zirenean, ez omen zen ez eguzki ez ilargirik, eta erabateko ilunpean omen zeuden herensuge, zaldi hegalari, iratxo eta antzeko izakien ikaraz. Beldurraren beldurrez, laguntza eske joan zitzaizkion Ama Lurri; eta honek ilargia emanez erantzun zien, isla motelez gaua argituz. Iratxoek argiari ihes egiten ziotela ikustean, ospatzera irten zen jendea. Iratxoen izuak ez zuen asko iraun, ordea; ohitu egin ziren argi-izla motel horretara eta, irteten hasi ziren berriro, gizakiak beldurraraziz. Hauek Ama Lurri laguntza eske hasi zitzaizkion berriro, eta honek argi biziagoa sortu zuen: Eguzkia. Ilargiak argituko zien gaua, eta Eguzkiak eguna. Baina iratxoak egunez eguzkitan agertzen ez ziren arren, gauetz agertuz jarraitzen zuten. Beraz, gizakiek Ama Lurrengana jo zuten berriro ere eskean.

Ama Lurrek lore bat eman zien, Ekilorea, Eguzkia adierazten zuena, hau ikusita iratxoek eguzkia zela uste izango zuten, gauetan ere desagertuko zirelakoan.



## Electricidad Perosanz Debasket, lehen mailako senior probintzian



Electricidad Perosanz Debasket lehen mailako taldea da dagoeneko. Aurreikuspenak gaititu, denboraldiari amaiera bikaina eman eta lehen mailako senior probintzian arituko da hurrengo denboraldian.

Maiatzaren 11n Deban bertan jokatu zuen denboraldi honetako azken partida Antigua Luberri A taldearen aurka, eta debarrak nagusitu ziren (75-67). Nolanahi ere, aurreko asteburuan Alde Zaharra B-ren aurka Benta Berri kiroldegian jokatutako partida izan zen erabakiorra mailaz

igotzea lortu ahal izateko –han ere Debako taldea gailendu zen, 45-73–.

Bi urte baino ez daramatza lehiazten Debasket Saskibalo Kluba eta haxe da bizi duen lehenbiziko “igoera historikoa”. Maiatzaren 11n ospatu zen garaipena; kiroldegian partida jokatu ostean udaletxean harrera beroa egin baitzieten jokalariei.

Urtero bezala, aurten ere saskibalo campusa antolatu du Debasketek, BKLrekin batera. Ekainaren 23tik 29ra egingo da, kiroldegian. Informazio gehiagorako: [debasketk@gmail.com](mailto:debasketk@gmail.com).

## Fin hasi du denboraldia Bitor Garitaonandia surflariak

Martxoaren hasieran Cadizen jokatu zen Open Surf Yerbabuena txapelketan eman zion hasiera Bitor Garitaonandiak 2019ko denboraldiari, eta azpitxapeldun geratu zen sub-18 mailan. Geroztik Europa mailako hainbat lehiaketetan ere izan da: Espinhon (Portugal) 49. postua lortu zuen, Caparican 33. postua eta Britainian, berriz, bederatzigarrena. Emaizta horiek, Europako Junior (sub-18) zirkuituko sailkapen nagusian 25. postuan kokatzea lortu du. Uztailean izango du Europako zirkuituko laugarren proba, Sopelan.

Apirilaren 27-28an Deban jokatutako Euskalsurf Surfing Zirkuituaren lehen proban ere ikusi ahal izan genuen gazte debarra olatuen artean maila handiko surflariekin lehiari.

Ahaleginak egin zituen bigarren txandara pasatu ahal izateko, baina ez zuen lortu gutxiagatik. Garitaonandiaz gain, Eritz Urrosolo eta Kevin Garcia debarrek ere lehiatu ziren proba horretan; Urrosolok egin zuen erakustaldirik finena herriko ordezkarien artean. Sailkapen nagusian, Ariane Ochoa nagusitu zen emakumezkoen artean, eta Hodei Collazok lortu zuen lehen postua gizonetzkoen artean.

### Sorginetxe Big Wave, irailean

Bestetik, II. Sorginetxe Big Wave Erronka irailean jokatuko dela iragarri du Euskal Herriko Surf Federazioak. Hasiera batean, urtariletik martxora bitartean egingo zela adierazi zuten, baina atzeratzen joan da hitzordua, itsasaldi aproposik ez delako izan.



ALAZNE TXURRUKA

### Bastiñuixa

Bastiñuiko dindaunetan jolastu izan nintzen ni eta baita nire garaiko gainerako neska-mutilak ere haur ginela. Orduan bazen “Bastiñuikoa” izena zuen lurrin-denda ere. Bastiñuixan ikasi genuen gehienok bizikletan ibiltzen, eta gaztaroan ere hainbat bizipenen testigu izan zen. Baina gaur egun ia inork ez daki non dagoen bastiñuixa. Arrotz egiten zaie gehienei, nahiz eta herri honetan bizi garen guztiok primeran ezagutzen dugun eta baita bisitan etortzen zaizkigunek ere. Gure herriak dituen leku eder horietako bat da, zaindu eta mantendu beharrekoa zalantzarik gabe.

Izenek badute xarma berezia; berezkotasuna adierazten dute. Bertakotasunaren adierazle dira. Baina guk, badugu geureak diren izen eta hitzak ahanzteko halako joera. Aspalditxo entzuten dut guraso gaztearen ahotik haurrekin, batez ere, “Goazen parkera!”. Ez dakizue nola buelta ematen didan barruak! Benetan arrotz sentitzen dut parkea. Entzun nuen lehen aldian, ezin nuen asmatu zer zen eta non zegoen, baina entzunaren entzunez, ondo baino hobeto dakit non dagoen, eta okerrena dena, gutxi barru ez zait arrotza irudituko.

Beharbada, jolas-gunearen sarrean dagoen kartelak izan dezake izendapen horren errua, edo hori da pentsatu nahi dudana, eta agian “Jolasparkea” beharrean, “Jolas-gunea” jarzea baino ez genuke beharko “parkea” gure ondotik bidaltzeko.

Bastiñuixak baditu beste izen batzuk ere, zumardia, alameda. Ez ditzagun ahaztu!!!





## Debarrak munduan

### KARMELE SCHMIDT ALBIZU

'81 urte ditut, austriar batekin ezkontuta nago eta hiru alaba eta bost biloba ditut. Lanbidez, andereñoa'. Halaxe aurkeztu digu bere burua Karmele Schmidt Albizuk. Mundua ezagutu eta hizkuntzak ikasi nahi zituen eta Austria aukeratu zuen bizileku. Bertan bizi da azken 55 urteotan, 1964az geroztik.

**Non zaude gaur egun? Noiztik zaude bertan?**

Austriar bizi naiz 1964tik. Beraz, 55 urte daramatzat bertan bizitzen. Feldkirch hirian bizi naiz zehazki, Austriako mendebaldean, Costanza lakutik gertu.

**Zerk eraman zintuen horra?**

Mundua ezagutzea eta hizkuntzak ikastea nuen helburu.

**Zelakoa da zure eguneroko bizitza?**

Osasun ona duen laurogei urteko baten bizimodu normala daramat, adin honetakoen gorabeherak tarteko.

**Espero zenuen bezalakoa da Austria? Zerk harritu zintuen?**

Giro desberdin batekin topo egin nuen, baina hori zen nahi zuena. Beraz, GUZTIA zen niretzat interesgarria.

**Zure egunerokoan euskarak ba al du lekurik?**

Ez, bat ere ez. Hain integratuta nago, uste dut alemanez pentsatzen dudala!

**Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?**

Nire sustraiak eraman nituen eta mantendu egiten ditut (hori ez da ahazten). Egunero hitz egiten dut Debako nire familiarekin. Eta ekarri, aukera irekiagoak ekarriko nituzke.



*Karmele, Austriako bere lehen neguan*



### Laburrean

**Paisaia bat:**  
itsasoa, Alpeetan bizi naiz eta.

**Usain bat:**  
kresalarena

**Zapore edo jaki bat:**  
arrain freskoa eta urdina

**Gustuko dut...**  
hainbat hizkuntzatan mintzatzea

**Ez dut gustuko...**  
mugak

**Amets bat:**  
Europa batu eta bakean



## Jon Ostolazak eta Alejandro Irizarrek "Osto eta Ale" diskoa kaleratu dute



Soinu txikia eta dultzaina elkarrekin doaz Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin plazaratu den "Osto eta Ale" diskoan. 18 piezaz osatutako lana da; errepertorio tradizionala sartu dute bertan (arin-arinak, fandangoa, porrusalda, baltsak...), baina berrikuntzarik ere bada tartean, kumbia, adibidez.

Itziarke festetan ezagutu zuten elkar Jon Ostolazak (Usurbilen bizidena) eta Alejandro Irizarrek. Eta, Itziar, bertako jaiak eta duela 40 bat urte sortu zuten "txaranga" dagoen proiektu berri honen oinarrian, nolabait esatearren. Izan ere, *Txankarta* soinu-jolearekin batera, bonboa, txapak, turutak, danborra, panderoa eta beste hainbat tresna jotzen zituzten herriarrek txaranga horretan eta urteotan makina bat musikari pasa da taldetik. Haien artean daude, hain justu, plazaratu berri den disko honen bi egileak.

### Ekain kobaren aurkikuntzaren 50. urteurrena

Abian daude jadanik Ekain kobaren aurkikuntzaren 50. urteurrena ospatzeko ekimenak. Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal azpeitiarrek aurkitu zituzten Ekain eta bere Madelein aroko labar-margo ikaragarriak, 1969ko ekainaren 8an. Eta urtemuga biribila ospatzeko, hainbat hilabeteko egitaraua antolatu dute Ekain Fundazioak, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Ekainberrik, Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundia, Donostia Kultura eta Deba zein Zestoako udalen babesarekin.

Ekainaren 8ra arte, adibidez, erakusketa bat egongo da ikusgai Agirre jauregian. Bertan, lehen aldiz, Ekaingo margoen erreplika egiteko erabili zituzten kalko originalak ikus daitezke -koban sartu ziren ikerlariak eginak dira-. Doan ikus daitezke erakusketa, asteartetik larunbatera (18:00-20:00) eta igandeetan (12:00-14:00).

Bonboarekin hasi zen lehenbizi Irizar txaranga, baina 50 urte bete zituenean, etxekoek dultzaina oparitu zioten. Hura ikasteari ekin zion, eta tresna horrekin aritu zen gerora txaranga. Taldeko kide zen Jon Ostolaza ere, eta han ezagutu zuten elkar. Dultzainaren eta soinu txikiaren arteko nahasketak sortzen duen emaitzarekin gustura, hamar urteko ibilbidea egin dute geroztik bi musikariek eta "Osto eta Ale" da beraien lehenengo lana.

Itziartik kanpo aritzen direnean, soinuaren eta dultzainaren arteko konbinazioak "harridura" sortu izan du gaur egungo erromeria giroetan; ez, ordea, hainbeste euskal musika herrikoia tradizioan. Duela 180 bat urte iritsi zen soinu txikia Euskal Herrira eta hemengo musika jotzen hasi ziren orduko trikitilariak. Hasiera hartan eta XX. mendean, trikitia eta dultzaina sarri jotzen ziren elkarrekin.

"Osto eta Ale" diskoa aurkeztu dute dagoeneko Itziarren, zuzenean. Itziarrekin duten lotura medio, gainera, bi musikariek hainbat itziartarren laguntza izan dute lana osatzeko bidean. Besteak beste, Aitor Zubikarai, Ander Zulaika eta Joxe Salegi *Lizarreta* bertako bertsolariak idatzi dituzte abesti berrien hitzak. Azken kantua ere Itziarri eskainita dago. "Badira lau urte Itziar auzo udal bihurtu zela, eta azken kantua herriari eskainia dago".



MAIALEN TELLABIDE

### Musika ikasten duzu? Eta zer gehiago?

Nire lankideek, ikaskideek, musikari lagunak eta nik hainbestetan entzun dugun galdera malapartatua da honako hau. Bada, agian informazio faltarengatik galdetzen duzue askok. Bai, zuk ere, irakurle kuttuna.

Musika goi mailan ikasten dugun askok umetatik ematen ditugu lehen pausoak, herri eskolan, musika eskolan, udal kontserbatorioan... Ordea, nerabezaroan gutxi gorabehera hartzen dugu gure etorkizuna zehaztuko duen erabakia: musikarekin jarraitu edo ez. Orduantxe konturatzen baikara zenbat ordu, sakrifizio eta diru eskatzen dituen ofizio honek.

Orokorrean bi alderdi daude instrumentuaren lanketan, alde batetik teknika eta bestetik musikaltasuna. Horrez gain, ikasgai teoriko-praktikoak ditugu: musikaren historia, musikaren estetika eta filosofia jakintza, harmonia, konposizioa, taldeko musika lanketa, orkestra (dutenentzat), hezkuntza erritmikoa, entzumen hezkuntza eta errepertorio lanketa.

Klase guztietara joateaz gain, egunean hainbat ordu ikasten ditugu kabina intsonorizatuetan; gainera askok lanean jarduten dugu aldi berean, kanpoan ikasten duen edozein ikasle dituen gastuei norberaren instrumentuaren mantenu eta material kostua gehitu behar diogulako (ez dezagun gaur hitz egin instrumentuen kostuaz).

Pentsatuko duzue... eta merezi al du honek guztiak? Bai, guztiz. Bokazio itsua da sentitzen duguna, musikarekiko maitasun mugagabea. Orduak eta orduak dira gozamen eta sufrimenduz, baina ezagutu ditudan pertsona zorionsuenak gara.

# Badator XXXIII. Antzerki Astea


Maiatzak **24**, ostirala:



Deban, Kale Antzerkia, 20:00etan.

**"REZIKLETAS"**

Tururutupa Kompainia. Gasteiz.



Itziariko Burugorri Aretoan,  
22:00etan.

**"MANIFESTU BAT"**

Beheko Larraine Taldea (Iruñea).

Maiatzak **25**, larunbata:




Aldats pilotalekuan, 22:00etan  
(5 euro).

**"IRAGANA LAHAR ETA LARROSA"**

Herri antzerkia. Segura.

Antzerki honek Primo de Riveraren diktadura egon zeneko garaietatik Gerra Zibilaren hasierara eramaten gaitu (1923-1937). Gipuzkoako Goierriko herri batean dago kokatuta eta orduko bi familien bizimodua azaltzen du.

Maiatzak **26**, igandea:



Aldats pilotalekuan, 13:00etan  
(3 euro).

**"TOMAXEN ABENTURAK 10 URTE"**

Tomaxen abenturak. Donostia.

Nire urtebetetzea da, 10 urte betetzen ditut. Denak gonbidatuak zaudete nire festara, bereziki nire lagun Muxi. Zuekin batera sorpresa izugarria emango diogu eta gero mozzorroekin ibiliko gara jolasean, kantatu egingo dugu, eta dantzatu, eta magia ere egingo dugu. Gainera, "txutxe tarta" prestatuko dugu ondoren jateko.





# Maiatzaren 24tik ekainaren 2ra ospatuko da, GOAZ Antzerki Taldearen eskutik

Azkar esaten den arren, dagoeneko iritsi da udaberria debarren artera, jadanik Debako Antzerki Astea 33. urte-mugaren atarian aurkitzen da. Nork esango luke horrelako ibilbide luzea izango zuenik Debako euskaltzale eta antzerkizale batzuek abiatu zuten bide hark.

Urtero bezala, bagatuz aurten ere udaberriko kimu berriak bagina bezala, antzerkiz betetzera gure herriko txokoak. Aspaldiko garaiak gogoan ditugu, Euskal Jolas frontoian edota Zubeltzu zaharrean emandako hainbat antzerki. Baita herriko kaleak apainduz eta alaituz jarri

genituen lore-sortak ere.

Antzerki Asteak kolorez eta ilusioz betetzen ditu gure txokorik kuttunenak, debarron bihotza berotzeko prest dator, ohitura zaharrak jarraituz, antzerkizaleari barrea, poza, algara edota agian negar malkoren bat ere sorrazaziko dio.

Herriko txikientzako pailazoak hor izango dira eta Itziarkoek ere aukera ederra izango dute. Eta hasteko, kale antzerkia; hori baino hoberik ez dago guztiok animatu eta kalera irteteko.

Maiatzak **29**, asteazkena



GOAZ Aretoan,  
10:30ean eta 11:30ean.

**"HOLLYWOODEKO IZARRA"**  
Aizarnako Eskola Antzerkia.  
Aizarna.

Xabierrek aktore izateko iragarki bat ikusi zuen. Kastinera aurkeztu eta proba desberdinak egin ondoren, aukeratua izan zen beste partaide batzuen artean. Behin aktore izanik, bere hiztza aldatu egin zen: elkarrizketak egiten zizkieten, telebistan eta aldizkarietan agertzen zen, selfie-ak ateratzen zituen...

Ekainak **1**, larunbata:



Aldats pilotalekuan, 22:00etan  
(6 euro).

**"RITA"**  
Txalo Produksioak. Donostia.

Unibertsitateko literatura irakaslea da Frank eta ikasle berri bat etorri zaito: Rita, pelukera. Aparteko bi mundu. Irakaslea etsiak jota dagoen poeta da, amore emandakoa, baina Ritaren agerpenak berpiztuko du. Ikasleak ikastea maite du eta irakasleak maitatzen ikasiko du. Sarritan, ikaslea bera izan ohi da irakaslerik onena.

Ekainak **2**, igandea:



Aldats pilotalekuan, 20:00etan  
(6 euro).

**"KAFFKA"**  
Kamikaz Kolektiboa. Donostia.

2049. urtean gaude. Sistemarentzako nerabezaroa kontrolatu beharreko etapa bat da. Pasioak ez du lekurik gizarte berri honetan. Nerabeen pasioek eragin ditzaketean arriskua eta kaosa ekidin nahian sortu dira Káffka eremuak. Testuinguru honetan ezagutuko dute elkar gure protagonistek: Lirian eta Orion.


Badator Antzerki Astea  
XXXIII. garrena  
Debatarroi ta inguruko  
Poztu asmoaz barrena  
Egiten degun deialdi hau  
Izan dadila ozena  
Ta bide batez luzatzen degu  
Denontzat gonbidapena

Itziarren deua *Manifestu Bat*  
Miren Tirapuren eskutik  
*Laharra eta larrosa*, berriz,  
Datorrena Seguratik  
Bai *Kaffka* eta bai *Ritarekin*  
Goza ezazu gogotik  
Kale antzerki eta pailazoekin  
Jarriko gera poz-pozik

Goratu dezagun Antzerkia  
Bai eta ere Euskara  
Biak uztartzen ditugunean  
Emaitza beti ona da  
Euskal kulturak duen altxor honi  
Eutsi beharrean gara  
Horregatik hurrengo urtean  
Animatuko al gara?

## 7 herrialdetako 10 film labur lehiatuko dira Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldiko Sail Ofizialean

**Fermin Muguruzak eta Raúl de la Fuentek *Black is beltza* eta *Un día más con vida* film luzeak aurkeztuko dituzte, hurrenez hurren, Panorama sailean**



Zazpi herrialdetako hamar laburmetrai lehiatuko dira Debako Udalak bultzatutako Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldiaren Sail Nagusian eta beste hainbeste luzemetrai Zuzendari Berriak EHU/UPV Sailean. **Hamarkada bateko ibilbide arrakastuaren ostean, Euskal Herriko animazio ekitaldi zaharrenak mostra izateari utziko dio, nazioarteko jaialdi bihurtzeko. Ekainaren 19tik 23ra bitartean ospatuko da, Deban.**

**Sail Nagusian** parte hartuko duten izenburuak hurrengoak dira: *Lauren Greenfield: How Capitalism Exploits Insecurities* (Lena Greene, AEB); *A bus* (Wen yu Li, Txina); *Cómo y por qué se ha esfumado Don José* (Moshe Ben-Avraham, Israel); *New York After Rain* (Haisi Hu, AEB); *Le Mans 1955* (Quentin Baillieux, Frantzia); *The Bird & the Whale* (Carol Freeman, Irlanda); *Flut* (Malte Stein, Alemania); *Soy una tumba* (Khris Cembe, Espainia); *32-Rbit* (Victor Orozco Ramírez, Alemania) eta *Muedra* (César Díaz Meléndez, Espainia).

Bestalde, **Zuzendari Berriak EHU/UPV Sailean** lehiatuko diren filmak ondorengoak dira: *Them People* (Nausheen Javed, Alemania); *It's wet!* (Alexis Godard, Nan Huang, Frantzia); *Your Future* (Petra Stipetic, Maren Wiese, Frantzia); *John don't know nothin* (Conor Kehelly, Erresuma Batua); *The incredible Wardrobagadget of Dr. Stein* (Gabriela Plačková, Txekiar Errepublikak); *Las del diente* (Ana Pérez López, AEB); *Fuse* (Shadi Adib, Alemania); *Not Yet* (Tímea Laura Varga, Hungaria); *No gravity* (kolektiboa, Frantzia) eta *Stuck in the*

*middle* (kolektiboa, Frantzia).

Aitor Oñederra Animadeba Zinemaldiko zuzendariaren esanetan, "nazioarteko lehiaketa bihurtu den edizio honetako film laburren hautaketarekin oso pozik gaude, baita hunkituta ere; Sail Ofizialean, Zuzendari Berriak nahiz Panorama sailetan, originaltasun eta ahalmen sortzaile maila handia ikusi daiteke. Laburmetrai bakoitza proposamen ezberdin bat da, animazio teknika desberdinei eta edukari dagokionez. Gure helburua da animazio generoan ikusi ohi ez diren alderdiak dituzten filmak ikusleei gerturatzea".

"Kultura desberdinetako zuzendariak biltzea atsegin handikoa izango da –erantsi du–; haien artean elkar ezagutuko dute, ideiak eta lan prozesuak partekatuko dituzte... egonaldiaren herriak disfrutatzea eta Zinemaldiko ekintzekin gozatzea da Animadebaren lantaldearentzat garrantzitsuenak".

**Sail Nagusian** hautatuak izan diren 10 proposamenek 500 euroko saria jasoko dute lehiaketan hautatuak izanagatik. Halaber, aukeratutako film labur guztiek jaso ahal izango dituzte jaialdiko sari ofizialak: Film Laburrik onena –garaikurrarekin saritua–, Gidoirik onena –garaikurrarekin saritua– eta Ikuslearen Saria –diplomarekin saritua–. Bestalde, Zuzendari Berriak sekzioan sari bakarra egongo da, 300 eurokoa, eta EHUK emango du.

**Fermin Muguruzaren eta Raúl de la Fuenteren film luzeak, Panoraman**

Animadeba Zinemaldiaren aurreko edizioetan esku hartu duten zinema

munduko pertsona ospetsuen ibilbidearekin jarraituz, musikagile, musikari eta zinemagile den **Fermin Muguruzak** *Black is Beltza* luzemetraia aurkeztuko du Panorama Sailean –Donostiako Zinemaldiaren 66. edizioako Zinemira Sailean parte hartu zuen lan horrekin–. Bestalde, **Raúl de la Fuenteren** *Un día más con vida* filma ikusteko aukera egongo da; Goya eta Europar Zinearen sariak lortu ditu, eta Canneseko Zinemaldiaren 71. edizioan jaialdietako ibilbide bikainari eman dio hasiera. Biek batera, gainera, Emile Awards Europear Animazio Sarietarako sei hautagaitza lortu zituzten.

Azkenik, Malagako Zinemaldiaren 23. edizioaren soinu banda onenaren saria lortu zuen **Salvador Simó Busomen** *Buñuel en el laberinto de las tortugas* lana proiektatuko da zirkulon.



Nere Oria debarrak egin du jaialdirako kartela.



# EAJ nagusi Deban

## Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan


1293 boto eskuratu ditu EAJ alderdiak Deban eta Itziarren Espainiako Kongresurako egindako azken hauteskundeetan (botoen %39,70). EH Bildu izan da bigarren indarra, botoen %30,40arekin, eta Elkarrekin Podemos, hirugarrena, botoen %14,95arekin. Arreta Itziarko hautes barrutiko emaitzetan jarriz gero, ordea, EH Bildu nagusitu da, EAJri 61 botoko alde aterata.

PSEk 312 boto lortu ditu (%9,63), PPK 58, Ciudadanos alderdiak 36, Vox-ek hogeitun, eta, besteak beste, 17 biztanlek Pacmaren alde egin dute. Boto zuriak ere izan dira, 18, eta beste hainbeste izan dira baliogabeak.

Apirilaren 26an egin ziren Espainiako Gorteetarako hauteskundeak. Deban eta Itziarren erroldatutako 4.272 biztanle zeuden deituta botoa ematera eta 3.257 hurbildu ziren hautestontzietara, %76,24a alegia. Nabarmentzekoa izan da, beraz, parte-hartzea; 2016ko hauteskundeekin alderatuta, adibidez, partaidetza %10,53 puntu igo baita.

Espainia mailan, PSOE izan da irabazle argia (123 diputatu) azken hauteskundeetan. PPK 66 diputatu lortu ditu (beherakada nabarmena izanik). Hirugarren geratu da Ciudadanos (57), laugarren Unidas Podemos (42), bosgarren Vox (24) eta seigarren Esquerra Republicana de Catalunya (15).

Maiatzaren 26an egingo dira Europarako, Udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak. Itziarren, bestalde, laugarren hautestontzi bat izango da, auzo alkatea hautatzeko.



## Komunitate musulmanaren meskita eta kultur gunea, Itur kalean

Itur kalean, 24. zenbakian, ireki dute Pakea-Deba meskita. Beraz, dagoeneko herriko komunitate musulmanak errezoko egiteko gunea izango du bertan. Sahara, Maroko, Mauritania, Argel, Pakistan, Senegal... bezalako herrietatik etortitako biztanle musulmanen kopurua ez da txikia Deban; komunitate horren elkarteak Pakea-Deba du izena, eta izen bera hautatu dute, hain justu, meskita eta kultur gunea berria izendatzeko.

Errezorako -bost aldiz egunean-baliatuko dute gunea; Imamik ez dago herrian, baina hiru kidek hartuko dute ardura hori euren gain. Horietako batek **Berriketan**-i azaldu dio egoitzako atearik "zabal-zabalik" daudela herritar guztientzat; eta interesa dutenentzako kontakturako bide zuzen bat ere eskaini dute: [jan\\_jaou@hotmail.com](mailto:jan_jaou@hotmail.com).


Bestetik, elkarteko kideen aurre-

kuspenen artean dago, esaterako, arabiera klaseak eskaintzea ere.

Urtebete inguru eman dute lokala atontzen, auzolanean. Hirigintza arauak aintzat hartuta, lurra txukundu dute, baita komuna, paretak eta leihoak ere. Maiatzaren 2an egin zuten inaugurazioa, eta herritar ugari hurbildu zen gunea berria ezagutzera. Jaki arabiarrak dastatzeko aukera izan zuten, gainera, bertaratutakoek.

Hitzorduan gonbidatu gisa hitza hartu zuten Deba-Itziar Solidarioa taldeko kideek. Adierazi zuten, "gaur egun, 41 naziotako pertsonak dauzkagu Deban eta 32 hizkuntza erabiltzen ditugu. Gizarte bizibide duina bermatu, gure artean dauzkagun kultura bereziak errespetatu eta bultzatuko dituen Deba barnerakoi baterantz joatea da gure asmoa. Gure dibertsitatea azaltzea, elkar errespetatzea eta orotari-

ko hiritarrei irekia zaien Deba izatea da gure helburua".



## KIMETZ ETXABE ZUBIAURRE TXIRRINDULARIA

**“Profesionaletara heltzea da ametsa, baina orain eskatzen dudana da urratsez urrats aurrera egin ahal izatea”**

Txiki-txikitatik hasi zen Kimetz Etxabe Zubiaurre debarra pedalei eragiten eta lau bat urte daramatza lasterketetan parte hartzen. 16 urte ditu gaur egun, eta Zumaiako Viveros San Anton taldeko kidea da, kadeteen mailan.

Aste Santuan Tafallan jokaturako Pistako Espainiako txapelketetan lehiatu da, Euskadiko Selektioarekin, eta ez da, ez, esku hutsik etorri. Zilarrezko domina, Espainiako azpitxapeldun geratuta taldekako abiaduran, brontzea 500 metroetan eta laugarren postu bat abiaduran... Azken lorpen horiek aitzakia hartuta, gaztearekin hitz egin du *Berriketan*-ek. Bere ibilbidea, bizi-penak, erronkak... izan ditugu hizpide.


**Lehenik eta behin, zorionak, Kimetz! Pozik Espainiako txapelketetan lortutakoarekin?**

Bai, oso! Otsail hasieratik Espainiako kopa prestatzen hasi ginen Euskal Selektioan; lehenengo Madrilen, ondoren Valentzian izan ginen, eta bietan ongi sentitu nintzen. Ez dut inoiz ere halako proba batzuetan parte hartu, baina ikusten nuen dezente aurrean ibiltzeko gaitasuna nuela. Eta Espainiako txapelketetarako deitu zidaten, proba berdinetan eta beste pare bat berritan parte hartzeko. Txapelketak iritsi zirenerako, lana aurretik ondo eginda nengoen entrenamenduetan. Hala ere, uste baino askoz hobeto sentitu nintzen, forma onean iritsi nintzen, eta bi domina ekartzea lortu genuen.

**Hedabideen bitartez jakin dugu, baina, txapelketatik minduta edo zaurituta itzuli zarela. Zer gertatu zen zehazki?**

Bai, kirol honetan denetarikoa pertsonak daude, jarrera desgokiak erabiltzen dituztenak dena irabazteko.

Igandean, azken egunean, keirineko klasifikatoria izan nuen. Oinetakoekin arazoak izan nituen, baina zorionez lehenengo bietan sartu nintzen eta finalera sailkatu. Finalen, buelta bat falta zela, oso ongi kokatuta nindoan, aurrean, eta indartsu, baina gauzak ez ziren nahi bezala atera. Beste txirrindulari bat behe aldean, nire atzean zihoala, konturatzen hasi zen lasterketa eskuetatik joaten ari zitzaiola, ni bere gaineko aldetik nindoala; buruko bat eman zidan atzeko ezkerreko aldetik bera pasatzeko, eta lurrera bota ninduen. Momentu txarrak izan ziren ikusle eta familiarentzat; lurrean nengoen, altxatutakoan



zorabiatuta lurrera erortzen hasi nintzen eta asko kosta zitzaidan buelta ematea. Ospitalera joan eta plakak atera ondoren, ezer apurturik ez zegoela esan zidaten, baina eskuineko alde guztia zauriz josita nuen. Astebete beranduago, eskuin eskuko atzamarrean tendoiko urradura nuela esan zidaten, eta ferula bat jarri zidaten sei astez.

**Eta zelan zaude gaur egun?**

Ongi nago jada, bizpahiru aste egon behar izan nintzen geldirik, bizikleta ukitu gabe, baina poliki-poliki entrenatzen hasi eta maiatzaren 12an irten nintzen lehen aldiz beste lasterketa batean.

**Amaitutzat eman duzu pistako denboraldia, ezta?**

Bai, nire pistako denboraldia berez otsailaren hasieran amaitzen da, baina aurten apirilera arte luzatu da, Euskal Selektioarekin lehiatzeko hautatu nindutelako; behin hori osatuta, orain uztail bukaerara arte errepidean zentratuko naiz.

**Zer nolako denboraldia egin duzu?**

Momentuz ongi doa. Azaroan pistan hasi nintzen, eskuan ebaki batekin, eta batere entrenatu gabe. Ziklo-krosa ere egin nuen lehenengo aldiz eta nire hirugarren lasterketan, Euskadiko txapelketan, 5. postu on bat lortu nuen. Pistan neguko Bio Racer sarian 4. postua lortu nuen, eta Gipuzkoako txapelketan ere bai. Errepidean, berriz, lasterketa gutxi izan ditut, eta postu onena hementxe egin nuen, Deban, 3. postua lortuta.



### Hitz gutxitan, zelan azalduko zenizkiguke pista eta errepidearen artean dauden ezberdintasun nabarmenenak?

Pistan, bizikletak desberdinak dira, ez dute frenorik eta ez da frenatzen; errepidean, aldiz, bai. Pistako lasterketak oso motzak izan ohi dira, fondokoak, 10-30 minutukoak, eta abiadurakoak, berriz, 2-3 minutukoak. Errepidean, ordea, ordu bat eta 40 minutu ingurukoak egiten ditugu guk.

### Ohikoa da bietan aritzea? Zu zeu non aritzen zara gus-turago?

Zorionez, Gipuzkoako federazioak asko egi-ten du eta lasterketa ugari antolatzen dira. Izena emanez gero, parte hartzea daukazu; beraiek uzten dizute bizikleta eta jende askok parte hartzen du, baina parte-hartzea mugatua da (Donostian, 30 partaide laster-ketako). Errepidean 200 irten gintezke... Niri neuri errepidea gehiago gustatzen zait, baina orain egin ditudan abiadurako probe-kin gero eta gustu gehiago hartu diot pistari.

### Zumaiaiko Viveros San Anton txirrindulari elkarteiko kide zara. Noiztik? Gustura sentitzen al zara tal-dean?

Bai, lehenengo urteko infantila nintzela hasi nintzen Viveros San Antonen, oso gustura nago tal-dekideekin, dugun giroarekin. Taldean bertan ere jarrera bikaina dago, tratu bikaina, babes-leek ere arropa dohainik ematen digute...

Deban bertan ez dago aukerarik txi-rindulari gisa hazten joateko edo ibilbi-dea egiten jarraitzeko? Kanpora joan beharra dago nahitaez? Nola amaitu zenuen zuk, adibidez, Zumaian?

Bai, Deban ez dago txirrindulari talderik, eta kanpora joan beharra dago, zehazki Elgoibarrera. Nik Viveros San Antongo pare bat ezagutzen nituen, baimena eskatu nuen taldean sartzeko, eta inolako arazorik ez zidaten jarri. Afizionatu mailara arte han ibil nintze, gero ikusiko dugu.

### Zelan entrenatzen zara zu, Kimetz?

Gehienetan bakarrik aritzen naiz, entre-natzaile pertsonal bat daukat, eta berak esaten dit zer nolako entrenamenduak egin egunerok. Batzuetan taldekideekin hitz egin eta gutako batzuk elkartzeko gara buelta bat emateko.

### Elikadura ere modu berezian zaintzen al duzu?

Oraindik ez, nire kategorian badaude zaintzen dutenak, baina nik behintzat oraindik ez dut beharrik.

### Entrenamenduak batetik, lasterketak bestetik. Zelan dar-mazu alde batetik bestera ibiltzearena? Eta hori dena ikasketekin uztartzea?

Beno, gustuko tokian aldaparik ez; gustura joaten naiz

entrenatzera, lasterketetara... eta ez zait zaila egiten ikasketekin uztartzea, momentuz ez behintzat.

### Eta nola bizi dute hori zure ingurukoek? Haiei ere zuzenean eragingo die eta...

Beraiek ni baino okerrago, seguru, entrenamendu eta laster-keta asko... denbora asko pasatzen dute aurrera eta atzera; bel-durra ere bai, erorikoak daudenean.



### Joan-etorriak, txirrindularitza materiala... kirol garestia al da txirrindularitza? Baduzu nolabait-teko laguntzarik edo babesik zentzu horretan?

Bai, egia esan, txirrindularitza garestia da, materialean diru asko gastatzen da, eta gero lasterketetan zerbait apurtuz gero gehiago, gasolina, autopista... diru asko. Laguntza bakarra da taldeko arropa doan izatea, eta gu gara taldeari ezer ordaintzen ez diogun bakarrak; beste taldeetan ordaindu egiten da.

### Noiz hasi zinen pedalei eragiten?

Txiki-txikitatik hasi nintzen. Betidanik izan dut txirrindua etxean, nire aitonaarekin orduak eta orduak pasatzen nituen etxean eta errepidean lasterketak ikusten. Dena den, lasterketetan lehenengo urteko infantila nintzela hasi nintzen, 12 urterekin, eta lau urte dar-matatzat.

### Zer eman dizu txirrindularitzak, eta zer kendu?

Eman, lagun asko, poztasunak ere bai... Kendu, denbora asko eta asko, lagunekin plan asko egiteari utzi behar...

### Zer eskatzen diozu etorkizunari?

Momentuz gozatzen segitzea eta ikasten, eta, ahal bada, bidea egiten segitzea; ametsa da profesiona-letara heltzea, baina oraindik kadetea naiz eta eskatzen dudana da urratsez urrats aurrera egin ahal izatea.

### Zurea da azken hitza, Kimetz. Galdetu ez dizugun zerbait nabarmendu nahi elkarrizketa amaitu aurretik?

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi-ko nizkioke Amaiak Bat txirrindulari elkarteari, urtero lasterketa hauek guztiak martxan jartzeagatik. Bestetik, Viveros San Anton taldeari, ematen duten tratuegatik.

Azkenik, Debako guztientzat mezu bat zabaltzeko nahi-ko nuke: animatu daitezela kirol hau probatzera. Probatzeagatik ez da ezer galtzen. Argi dago Debatik kanpora joan behar dela, baina beste kirol askotan jendea elkartzeko bada, txirrindularitzan lehitzeko ere antolatuko litzateke. Polita litzateke Deban ere txirrindulari taldea izatea.



**“Kirol hau probatzera animatuko nuke jendea. Polita litzateke Deban ere txirrindulari taldea izatea”**







## Udaberrikoak bukatuta, Gaztelekuan udako oporrei begira hasi gara

Ikasle izanik, udaberriko opor egunak iritsi bezain pronto martxa bizian hasi ginen Gaztelekuan.

Hasteko, aste arruntetan ez bezala, egunero irekita egon zen, zerbitzua ordutegi zabalago batekin eskainiz.

Horrez gain, oporretako bi asteetan, ekintza desberdinetan murgilduta ibili ginen. Adin tarte guztiekin burutu genuen irteeraren bat.

13 urtekoekin, adibidez, Errekaldeko Txiki-Parkean izan gara aurten. Talde handia bildu zen irteera honetarako eta bertan hain gustura ibili zirenez, aurreikusitako denbora luzatu egin genuen.

14 urtekoekin, berriz, Salting Iruña zentrorra joan gara. Aurtengo berrikuntzetako bat izan da irteera hau. Salting Iruña zentroa eremu zabal-zabala da, 37 ohe elastiko horizontal eta 19 bertikal dituena; jautzira gozatzeko eta jarduera ludikoa edota kirola egiteko diseinatuta dago. Elgoibarko Gaztelekukoekin batera joan gara bertara, gazte guztiok elkar ezagutzeko aukera izan dugularik. Bertara joan garen lehen aldia izan bada ere, bigarren aldi bat egongo dela dirudi, esperientzia positiboa izan baita.

15 urtekoekin bi irteera egin ditugu, bat Mendexako abentura parkera eta bestea EITBko *Gure Kasa* programara.

Urtez urte abentura parke desberdinak ezagutu ditugu eta aurtengoan Mendexakoa ezagutzeko aukera izan dugu; 70 erronkatik gora eta 17 tirolinadun 4 zirkuitu ditu. Zuhaitzez zuhaitz ibiltzeko aukera paregabea izan genuen ibilbide haue-



tan, tirolinak, tibeteko zubiak, lianak, eta abar gaintuz.

16 urtekoekin, ohitura mantenduz, Lasturrera oinez joan-etorria egin eta bertan paintballean aritu gara.

Gaztefutbol taldeak osteguneroko entrenamenduetan landutakoa erakusteko aukera izan zuen Bergarako futbol zelaian. Bertan, Arrasate, Elgoibar eta Bergarako taldeekin lehiatzeko aukera izan zuten. Eurria ez zen traba izan jokoan disfrutatzeko orduan.

17 urteko gazteekin abenduan Saharara joateko espedizioa lotzeko baliatu ditugu opor egunak.

Behin udaberriko oporrak bukatuta, Gaztelekuan udako oporraldiari begira hasi gara eta izango duzue gure berri!

*Gaztelekuko Hezitzaileak*





**MAIATZAK 24-EKAINAK 2**

-XXXIII. Euskal Antzerki Astea, GOAZ taldearen ekimenez (ikus egitaraua 10-11. orrialdeetan).

**MAIATZAK 25, LARUNBATA**

-8:30. **Mendi irteera** (bi eguneko), Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

-10:00. **Debarrena V. Orientazio raida\***

-11:00. **Debarrena III. Raid familiara\*** (informazioa eta izen-ematea: [debarrenamid.wordpress.com](http://debarrenamid.wordpress.com)).

**MAIATZAK 26, IGANDEA**

-Europarako, Udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak.

-12:30. **Bisita gidatua: Debatik Zumaia** **itsasontziz** (gaztelaniaz). Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**MAIATZAK 29, ASTEAZKENA**

-19:00. **Irakurketa Kluba**, udal liburutegian. Asier Seranok gidatuta, *Ácido sulfúrico* liburuz arituko dira.

**MAIATZAK 30-EKAINAK 2**

-**Asentzioak Endoian**: afaria bertsolari eta trikitilariekin, dantza eta magia emanaldiak, herri-kirolak...

**MAIATZAK 31, OSTIRALA**

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko mobilizazioa, plazan.

**EKAINAK 1, LARUNBATA**

-17:30. **Bisita gidatua: Debatik Zumaia** **itsasontziz**. Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**EKAINAK 3, ASTELEHENA**

-18:30. **Yoga tailerra**, Debako Zaharren Biltokian. Edozein adineko pertsoneri zuzenduta, samera doan.

**EKAINAK 8, LARUNBATA**

-10:00. **Txangoa**: Miarritze-Hondarribia, Itziarko Jubilatuen Komisioak eta Auzo Udalak antolatuta.

-18:00. **Akanpada** Urritzun (irteera Itziarko frontoi paretik).

**EKAINAK 9, IGANDEA**

-**Andutz Eguna**.

**EKAINAK 13, OSTEGUNA**

-20:30. **Film emanaldia**: "Napardeath", Itziarko Andutz biltokian.

**EKAINAK 15, LARUNBATA**

-17:30. **Bisita gidatua: Debatik Zumaia** **itsasontziz**. Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**EKAINAK 16-23**

-**Animadeba Nazioarteko Zinemaldia** (ikus 12 orrialdea eta [www.animadeba.com](http://www.animadeba.com)).

**Erakusketa**

-**"Ekain 50. urteurrena"** erakusketa ekainaren 8ra arte izango da ikusgai Agirre jauregian. Bertan, Ekaingo margoak erreplikatzeko erabiltako kalko originalak ikus ditzake bisitariak (doan). Orduategia: asteartetik larunbatera (18:00-20:00) eta igandean (12:00-14:00).



**KZguneko ikastaroak**

-KZguneak goizeko orduategia izango du maiatzean eta arratsaldez arituko da ekainean. Hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: Instagram, WhatsApp... Informazioa: 943 02 36 29 telefono zenbakian edo [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus)-en.

**Lehiaketak**

-Irailaren 28an ospatuko dugun **aro berriko XXII. Euskal Jairako kartel lehiaketa** abiatu du Zuhatzak. Informazioa: 943 19 13 83.

-**II. Balkoien eta leihoen edertze lehiaketa** abiatu du Debako Udalak. Informazioa: 943 19 28 40.

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitadeen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

**Taxi Alain Deba**

LIZ.-ZK.: 3

[www.alain.taxideba.eus](http://www.alain.taxideba.eus)

**636 135 008**  
[alain@taxideba.eus](mailto:alain@taxideba.eus)

WiFi

**ZAINTZAKO BOTIKA**  
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:  
ZALDUEGI: maiatzak 25 / ekainak 1  
BURGOA ZUAZO: ekainak 8 eta 15

**9:30 - 13:00**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**Uzuri**  
optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN**

Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12



# Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



MASAJISTA

Tel.: 677 557 615

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

**28 URTEKO ESPERIENTZIA**

**DEBA**

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!



**943 191 383**

berriketan@zuhatzeta.com



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Platera konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan trasaok

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



*Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik*

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

**Azoka**

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxo: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

✉ Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

☎ Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

🌐 sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com



**Hazitik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: hazitik@gmail.com

**k**  
**kutxabank**

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



# EUSKAL JAIA 2019 IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETA

-Lanak aurkezteko azken eguna: uztailak 5, ostirala (13:00)

-“Euskal Jaia 2019 Deba” esaldia agertu behar da, soilik (euskara hutsean)

-Teknika librea izango da eta kartelak euskari fisikoan nahiz digitalean aurkez daitezke (Zuhatza elkartearen bulegoan, edo [zuhatza2@gmail.com](mailto:zuhatza2@gmail.com)-era bidalita)

-Lanen neurria A2 tamainan kalitatez argitaratzeko modukoa izan behar da, eta formatuak nahitaez bertikala izan behar du

-Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake

-Obrak originalak izango dira

-Kartel irabazlea herritarren botoen bidez aukeratuko da, erakusketa batean

-Irabazleak 300 euroko saria jasoko du

-Kartel irabazlea Euskal Jaia iragartzeko erabiliko da eta Zuhatzaren esku geratuko da (lana inprimatu, argitaratu eta haren zabal-kundea egiteko eskubidearekin)

-Informazio gehiagorako: 943 19 13 83.